



TXOSTEN METEOROLOGIKOA – UDAZKENA 2022

Prezipitazioari dagokionez, udazken honetan alde handiak izan ziren eskualde batetik bestera; kostaldean oso hezea izan zen, Arabako hegoaldean, ordea, oso lehorra. Batez besteko tenperatura oso beroa izan zen, serie historikoan izandako bigarren beroena, 2006ko batez besteko tenperaturaren atzetik. Muturreko egoerei dagokienez, hilabeteak pasa ahala gero eta abisu gehiago igorri ziren, hainbat arrazoiengatik. Irailean bero-bolada bat izan zen, hilaren 11tik 13ra. Urrian aipagarriena baso-suteengatik igorritako 4 alerta laranja izan ziren. Gogoratu behar da urria serie historikoan izandako beroena izan zela, 4 °C-tik gorako anomalia positiboarekin, inoiz behatutako anomalia positiborik handiena. Horrez gain, urria lehorrenen artean egon zen. Horregatik lurra oso lehor egon zen eta, tenperatura altuaren eta hego-haizearen laguntzaz, baso-sute arriskua oso altua izan zen. Azaroan bi alerta laranja igorri ziren, kasu honetan olatuen altueragatik nabigaziorako eta kostaldeko inpaktuagatik.

Prezipitazioa

Udazkena oso ezberdina izan zen EAEn eskualde batzuetatik besteetara. Kostaldean udazkena oso hezea izan zen, Araba hegoaldean, aldiz, oso lehorra (han ohikoa denaren erdia baino euri gutxiago egin zuen). Tartean, Kantauri bailaretan ohikoa izan zen udazkena, isurialdeen banalerroan lehorragoa, batez ere Mediterraneo isurialdean. Mende honetako hirugarren udazkenik lehorra izan zen, 2007 eta 2006koaren atzetik.

Pilatutako prezipitazioaren banaketa espazialari dagokionez, Gipuzkoako ipar-ekialdean egin zuen euri gehien, bai Nafarroako mugan dauden mendi inguruetan, bai kostaldeko ekialdean. Zenbait estaziotan 500 mm baino gehiago pilatu ziren, Eskasen 600 mm baino gehiago (Eskas 668.1 mm, Miramon 562.3 mm, Behobia 555.3 mm, Añarbe 524 mm, Oiartzun 505.8 mm). Zenbat eta mendebalderago Kantauri isurialdean, orduan eta euri gutxiago egin zuen. Hortik kanpo mendi inguruetan eta Bizkaiko kostaldean baino ez zen pilatutakoa aipagarria izan (Matxixako 421.1, Muxika 386.7 mm, Mungia 372.6 mm, Urkiola 356 mm, Mallabia 346.1 mm). Ebro ondoko eskualdean egin zuen euri gutxien, baita Arabako Mendialdeko zenbait lekutan ere; han 100 mm baino gutxiago pilatu ziren (Zambrana 55.7 mm, Moreda 57.2 mm, Paganos 59.9 mm, Subijana 75.3 mm, Espejo 78.6 mm, Nanclares 82.2 mm, Navarrete 89.7 mm). Kantauri isurialdeko barnealdean, isurialdeen banalerrotik gertu, pilatutako euria ere urria izan zen (Orozko 181.2 mm, Gardea 189 mm, Arrasate 212.4 mm, Estanda 220.9 mm, Cerroja 239.9 mm), baita Enkarterrietan ere (Ordunte 230.8 mm, Cerroja 239.9 mm).

Irailean eta azaroan kostaldearen eta EAEko hegoaldearen arteko aldea nabarmenagoa egin zen. Urria izan zen udazkenaren kalifikazioan ekarpen handiena egin zuena, hainbat estaziotan mende honetako urrik lehorra izan baitzen.

Hiruhilekoan pilatutakoarekin gertatzen den bezala, euri-egunen (≥ 1 mm) kopurua kostaldean ohikoa izan zen, batez ere kostaldearen ekialdean. Zenbat eta hegoalderago, eta orduan eta txikiagoa izan zen euri-egunen kopurua. Hiriburuz hiriburu, Bilbon 25 euri-egun inguru izan ziren, Donostian, 32 eta Gasteizen 22; batezbesteko normala 34.9, 31.8 eta 26.1 da, hurrenez hurren. Hiru hilabeteen modu irregularrean banatu ziren euri-egunak; gehienak irailaren amaieran eta azaroaren bigarren hamabostaldian izan ziren.

Oro har, 9 egunetan prezipitazioa oso ugaria (≥ 30 mm) izan zen, egun bat irailean izan zen eta gainerako zortziak azaroan.

Iraila oso lehorra izateko bidean zihoan, baina irailaren 29an eta 30ean egindako euriak kalifikazio hori aldatu zuen. Lehenengo egunean kostaldearen ekialdean 60 mm baino gehiago pilatu ziren (Behobia 63 mm, Miramon 58.3 mm, Oiartzun 55.2 mm, Ereñozu 55.1 mm). Bizkaiko barnealdeko zenbait lekutan (Igorre 54.7 mm, Sangroniz 53.7 mm, Amorebieta 53 mm, Venta Alta 52.4 mm) eta Bizkaiko kostaldean (Matxitxako 52.4 mm, Muxika 50.1 mm) pilatutakoa ere nabarmena izan zen. Hurrengo egunean ere euria oso ugari egin zuen, baina leku jakin batzuetan bakarrik, Bilbo Handian eta Gipuzkoako barnealdean (Bidania 34.6 mm, Ibai Eder 32 mm). Orokorrean, ez zen arazorik izan ibaietan, uda oso lehorra izan zelako, baina hilaren 30ean, goizean goiz, Bilbo Handian zaparrada handiak bota zituen (Zorrotza 28.5 mm/h, Galindo 15.9 mm/h) eta garraibideetan arazoren bat izan zen.

Azaroan izandako gertaerarik aipagarriena hilaren 21ean izan zen, udazken osoko egunik euritsuena, EAE osoan pilatutako batez besteko prezipitazioa ia 30 mm izan zen eta. Ia Gipuzkoa osoan eta Bizkaiko ekialdean prezipitazioa oso ugaria izan zen eta Gipuzkoako ipar-ekialdeko estazioetan 60 mm baino gehiago pilatu ziren (Eskas 68.6 mm, Miramon 67.2 mm, Behobia 62.5 mm, Añarbe 56.2 mm, Oiartzun 51.8 mm). Goizean ezegonkortasun-lerro batek lurraldea zeharkatu zuen eta zaparrada ertain-handiak eta trumoiak bota zituen (Eskas 20 mm/h, Miramon 20 mm/h, Oñati 16.9 mm/h). Zaparrada horien ondorioz, ibaiaren mailak gora egin zuen azkar eta Jaizubiako estazioa maila laranja igo zen (1.926 m).

Azaroaren 19an, 28an eta 29an ere euria oso ugari egin zuen, antzeko banaketa espazialarekin. Gipuzkoa ipar-ekialdean 50-60 mm pilatu ziren, Araba hegoaldean, berriz, ateri eutsi zion edo prezipitazio urria egin zuen.

Taula. Azken urteetan udazkenean pilatutako prezipitazioa Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

	2022	2021	2020	2019	2018	2017	2016	2015	2014	2013	2012	2011
Zorrotza	247.7	492.5	274.3	448.3	214.1	267.3	244.2	299.6	172.5	340.9	492.5	274.3
Lasarte	441.9	543.8	391.2	590.3	339.6	434.2	430.3	269.6	274.9	545.9	543.8	391.2
Arrasate	212.5	441.1	285.2	544.5	280.6	268.7	282.3	293.6	239.1	469.7	441.1	285.2
Abetxuko	110.4	229.8	201.5	320.9	169.2	114.5	152.6	110.9	214.3	216.4	229.8	201.5
Paganos	59.9	191.8	100.2	207.9	142.0	49.8	99.6	128.3	188.9	149.2	191.8	100.2

Tenperatura

Udazkena oso beroa izan zen EAE osoan. Kostaldeko batez besteko tenperatura 17 eta 19 °C artekoa izan zen, Arabako Lautadakoa 14-15 °C artekoa, 1981-2010 periodo normalarekin alderatuz 2.5 °C inguru altuagoa. Serie historikoko bigarren udazkenik beroena izan zen; 2006ko urria beroagoa izan zen hamarren batzuentatik soilik. Deba Goienan eta Arabako Errioxan dauden zenbait estaziotan udazken honetako batez besteko tenperatura 2006koa baino altuagoa izan zen.

Hiruhileko osoa izan zen beroa, baina erabat ez ohikoa izan zen urriak egin zuen ekarpen handiena azken kalifikazioan. Urria erabat beroa izan zen, 4.4 °C anomalia positiboarekin, inoiz izandako handiena.

Irailaren lehenengo egunek udako ildo beretik jarraitu zuten eta egun beroak izan ziren. Hilaren 18tik aurrera egunak hotzagoak izan ziren, ordea. Urrian egun beroak gailendu ziren, ohikoa dena baino nabarmenago gainera. Azaroaren hasieran ere egun beroak izan ziren nagusi, baina hilaren 18tik aurrera egun hotzak eta beroak tartekatu ziren, batez ere barnealdean.

Irailaren 11 izan zen udazkeneko egunik beroena. Bizkaiko barnealdeko bailaretan tenperatura maximoak 40 °C-tik gorakoak izan ziren (Sodupe 40.4 °C, Derio 39.2 °C, Mungia 39.1 °C, Galindo 39 °C), Gipuzkoakoetan 38 °C-tik gorakoak (Arrasate 38.1 °C, Alegia 37.8 °C, Alzola 37.6 °C). Mediterraneo isurialdean tenperatura maximoak 35 °C ingurukoak izan ziren (Zambrana 35 °C, Espejo 34.9 °C, Arkauti 34.6 °C).

Hego-haizeak tenperatura minimoak altu mantendu zituen eta hurrengo eguneko maximoak baxuagoak izan ziren arren, Kantauri isurialde osoan tenperatura altu iraunkorra izan genuen. Irailaren 12an mende honetako tenperatura minimo altuenak neurtu ziren zenbait tokitan, batez ere Gipuzkoan (Aizarnazabal 28.3 °C, Andoain 28.2 °C, Ordizia 24.9 °C, Arrasate 24.5 °C), baina baita Bizkaiko barnealdean ere (Otxandio 23 °C, Elorrio 22.9 °C, Urkiola 20.6 °C). Irailaren 13an ere tenperatura altu iraunkorrak izan genituen kostaldean.

Urrian ez zen izan gainerako egunen gainetik nabarmendu zen egun bereziki berorik, baina bai denboraldiak zeinetan tenperatura balio altuetan mantendu zen. Horren adibide, 30 °C-tik gorako tenperatura maximoak neurtu ziren 13 egunak. Hilaren 17tik aurrera gau tropikal ugari izan zen. Egunero 20 °C-tik gorako tenperatura minimoak neurtu ziren, egun gehienetan kostaldeko zenbait lekutan soilik, baina egun batzuetan kostalde ia osoan eta Kantauriko bailaretako zenbait lekutan ere neurtu ziren, adibidez hilaren 18an (Mutriku 24.3 °C, Higer 23.6 °C, Amundarain 21.7 °C, Zizurkil 21.6 °C, Punta Galea 21.1 °C, Igorre 21.1 °C, Almiike 20.7 °C) edo hilaren 27an (Higer 25.6 °C, Mutriku 25.3 °C, Behobia 24.6 °C, Amundarain 24.6 °C, Oñati 23.9 °C, Ordizia 23.4 °C, Igorre 23 °C). Azken egun horretan zenbait estaziotan urteko tenperatura minimoen errekorra gainditu zen.

Tenperatura minimo baxuenei dagokienez, irailaren 21ean han-hemenka izotza egin zuen lehenengo aldiz; Arabako Mendialdeko Iturrieta eta Pagoetan zerua garbi egon zen, inbertsio-termikoa sortu zen eta tenperatura 0 °C-z azpikoa izan zen, hamarren batengatik izan bazen ere. Azaroaren 27an Arabako Mendialdeko eta Añanako Eskualdeko zenbait lekutan izotz handia egin zuen (Navarrete -2.7 °C, Espejo -2.3 °C, Kanpezu -2.1 °C, Antoñana -2 °C), Subijana -1.6 °C). Egun horretan Gasteizen izotza egin zuen, udazkeneko lehenengo izoztea izan zen (Abetxuko -0.4 °C, Arkauti -0.1 °C). Azaroaren 18ko inflexio-puntua tenperaturan nabarmenagoa izan zen kostaldean eta tenperatura gero eta sarriago izan zen 10 °C-tik beherakoa. Azaroaren 26a izan zen kostaldeko egunik hotzena (Punta Galea 8.8 °C, Almike 9 °C, Mutriku 10.5 °C, Miramon 6 °C, Higer 8.8 °C).

Ezohiko tenperatura altuaren beste ondorio bat baso-suteak izan ziren, batez ere urrian. Lurzoruaren lehortasunagatik, tenperatura altuagatik eta hego-haizearen indarragatik baso-sute arriskua handia izan zen. Urriaren 16tik aurrera baso-suteak izan ziren gurean, haien artean aipagarriena Balmasedakoa. Hilaren 23an hasi zen eta 500 hektarea inguru erre zituen, Bizkaian 1989 urteaz geroztik izandako baso-suterik handiena.

Udazken honetan, kostaldeko intsolazioa ohikoa izan zen, barnealdean ohikoa dena baino altuagoa, Mediterraneo isurialdean ohi baino % 10-20 eguzki-ordu gehiagorekin. Bilbon 381 eguzki-ordu inguru izan ziren, Donostian 420 eguzki-ordu eta Gasteizen 490 eguzki-ordu.

Taula 2: Udazkenean, azken urteetan, neurtutako batez besteko tenperatura Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

	2022	2021	2020	2019	2018	2017	2016	2015	2014	2013	2012	2011
Zorrotza	18.7	15.9	16.4	16.3	16.4	15.4	16.5	16.9	16.9	16.8	15.9	16.4
Lasarte	16.9	14.6	15.4	15.0	15.3	14.4	14.9	15.2	15.4	15.4	14.6	15.4
Arrasate	16.2	13.6	14.0	13.5	14.1	12.9	13.6	13.4	13.9	13.7	13.6	14.0
Abetxuko	14.1	11.7	12.0	12.6	13.0	11.7	12.5	12.3	13.1	12.7	11.7	12.0
Paganos	15.5	13.0	13.1	13.4	13.3	13.3	13.7	12.9	13.5	12.9	13.0	13.1




Udazkeneko oinarrizko datu estatistikoak


Taula 3: Udazkeneko balio klimatikoak, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

Estazioa	Batez besteko Tenp. °C	Tenp. max. °C	Tenp. max.abs. °C	Tenp. min. °C	Tenp. min.abs. °C	Izotz- egunak	Pilatutako euria l/m ²	Egun batean pilatutako euri max. l/m ²	Euri- egunak.
Zorrotza	18.7	23.0	38.1	15.2	8.1	0	247.7	46.2	25
Lasarte	16.9	22.0	36.8	12.9	6.1	0	441.9	57.5	32
Arrasate	16.2	22.3	38.1	11.5	3.1	0	212.5	31.8	26
Abetxuko	14.1	20.6	33.6	8.4	-0.4	1	110.4	11.8	22
Páganos	15.5	21.3	32.8	10.4	2.3	0	59.9	12.2	12

Eguneko temperatura eta prezipitazioaren grafikoak



Prezipitazioaren jokaera



Muturreko egoerak

Udazkenean 60 abisu hori igorri ziren: 4 prezipitazio handiagatik, 7 prezipitazio iraunkorragatik, 6 haizeagatik haizeguneetan, 1 haizeagatik haizeguneak ez diren tokietan, 2 enbatagatik, 13 olatuen altueragatik nabigaziorako, 9 kostaldeko inpaktuagatik, 1 tenperatura oso altuengatik eta 17 baso-sute arriskuagatik.

Horrez gain, azaroaren amaieran 6 alerta laranja igorri ziren, 4 baso-sute arriskuagatik urrian eta 1 olatuen altueragatik nabigaziorako eta 1 kostaldeko inpaktuagatik azaroan.

Ondoren gertaera esanguratsuenen sorta aurkezten da:

Iraila

- Hilaren 11an Iberiar penintsularen ekialdean gailur bat indartu zen eta erdi mailako geruzan aire beroa zabaldu zen, 23 edo 24 °C inguruko tenperaturarekin maila horretan. Azalean, Portugalgo kostaldearen parean depresio bat kokatu zen eta horregatik hego-haizea ibili zen gurean. Bero handia egin zuen egun horretatik aurrera, batez ere Kantauri isurialdean. Hilaren 11 izan zen egunik beroena, 40 °C-tik gorako tenperatura maximoekin (Sodupe-Cadagua, 40.4 °C). Hilaren 12an tenperatura maximoak nahikoa jaitsi ziren eta 38 °C-tik beherakoak izan ziren, baina hainbat eta hainbat tokitan 20 °C-tik gorako tenperatura minimoak izan ziren. Hilaren 13an ere nahikoa jaitsi ziren tenperatura maximoak eta zenbait tokitan baino ez ziren izan 34 °C-tik gorakoak (Oleta, 34.4 °C), baina tenperatura minimoek gora egin zuten berriro eta kostaldearen ekialdean 25 °C-tik gorakoak izan ziren (Behobia, 25.2 °C; Higer, 25.1 °C). Egun horretako tenperatura minimoak azken orduetan neurtu ziren; goizaldean askoz altuagoak izan ziren.

Estazioa	Tenperatura maximoak, hilak 11 (°C)
Sodupe-Cadagua	40.4
Derio	39.2
Mungia	39.1
Galindo	39
Galdakao	38.9
Gardea	38.8
Zalla	38.2
Ordunte	38.2
Saratxo	38.2
Igorre	38.1

Estazioa	Temperatura minimoak, hilak 12 (°C)	Ordua UTC
Elorrio	22.9	00:20
Matxixako	22.8	05:10
Higer	22.7	05:20
Behobia	22.5	20:30
Untzueta	22.1	05:30
La Garbea	22.1	05:20
Santa Clara	22	04:00

Estazioa	Temperatura maximoak, hilak 12 (°C)
Oleta	37.9
Arrasate	37.8
Ordunte	37.8
Berna	37.7
Mungia	37.4
Arteaga	37.3
Areta	37.3
Gardea	37.3
Galdakao	37.1
Sodupe-Cadagua	37

Estazioa	Temperatura minimoak, hilak 13 (°C)	Ordua UTC
Behobia	25.2	22:20
Higer	25.1	21:20
Santa Clara	24.9	21:10
Oartzun	24.4	19:50
Oñati	24.2	23:50
Elorrio	24.1	23:50
Zizurkil	24	22:50

Estazioa	Temperatura maximoak, hilak 13 (°C)
Oleta	34.4
Ordunte	33.6
Mungia	33.5
Sodupe-Cadagua	33.4
Arteaga	33.2
Sangroniz	33.1
Berriatua	33.1

Igandea, hilak 11: Abisu Horia muturreko temperatura oso altuengatik Bizkaian eta Gipuzkoan 13etatik 19etara ordu lokala. Abisu Horia baso-sute arriskuagatik 09etatik 24etara ordu lokala.

Astelehena, hilak 12: Abisu Horia baso-sute arriskuagatik 00etatik 24etara ordu lokala.
Asteartea, hilak 13: Abisu Horia baso-sute arriskuagatik Bizkaian 10etatik 18etara ordu lokala.

- Hilaren 12an goi-geruzan depresio hotz bat Portugalgo kostaldearen aurrean kokatu zen eta, ondorioz, Iberiar penintsularen mendebaldean ezegonkortasuna areagotu egin zen. Egun horretan bero handia egin zuen (Oleta, 37.9 °C, Arrasate, 37.8 °C) eta arratsaldearen hasieran Arabako mendebaldean eta hegoaldean zaparrada trumoiitsuak sortu ziren. Zaparrada horiek gero ipar/ipar-ekialdera mugitu ziren, itsasora ailegatu arte. Zaparrada horiek txikiak izan ziren, baina arratsaldearen amaieran Ebro ibarrean zaparrada handiagoak sortu ziren. Horiek ere mugitu ziren, Arabako ekialdea eta Gipuzkoako erdialdea eta ekialdea zeharkatuz; Gipuzkoako zenbait lekutan zaparrada handiak bota zituen. Zaparradekin batera, haize-bolada oso gogorak izan ziren, haien artean aipagarrienak Jaizkibelen (99.5 km/h), lurretan (70.6 km/h) eta Ilarduan (70.2 km/h) neurtutakoak. Hilaren 13an, antzeko egoera sinoptiko baten pean, beroa ez zen hain handia izan (Oleta, 34.4 °C, Ordunte, 33.6 °C) eta zaparrada trumoiitsuak bota zituen arren zaparrada horiek ez ziren handiak izan (Tobillas, 6.9 mm/h). Hilaren 13an, arratsaldeko zaparradekin batera, kostaldeko zenbait lekutan haizea ipar-mendebaldera aldatu zen. Aldatzerako unean, Punta Galean 85.4 km/h-ko haize-bolada neurtu zen eta tenperatura 6-8 °C jaitsi zen. Kostaldeko beste zenbait lekutan ere egin zuen ipar-mendebaldera haizeak, baina zaparradak pasa ondoren haizea hegoaldeetik finkatu zen berriro.

Estazioa	Prezipitazioa, hilak 12 (mm/10 min)	Ordua UTC
Ibai Eder	9.5	18:40
Estanda	8.5	18:30
Matxinbenta	7.5	18:30
Iturrieta	7.1	18:30
Aizarnazabal	6.5	18:40

Estazioa	Prezipitazioa, hilak 12 (mm/h)	Ordua UTC
Matxinbenta	16.6	19:20
Ibai Eder	16.4	19:20
Estanda	16.3	19:10

Astelehena, hilak 12: Abisu Horia prezipitazio handiagatik 15etatik 22etara ordu lokala.
Asteartea, hilak 13: Abisu Horia prezipitazio handiagatik 15etatik 24etara ordu lokala.

- Hilaren 29an, egunaren lehenengo partean, azalean mendebaldeko haize indartsua izan zen eta Kantauri itsasoan fronte okluditu bat kokatu zen. Kostaldean zaparrada ertainak sarri bota zituen, batez ere Busturialdean eta Gipuzkoako ekialdean, mendebaldeko haizearen eragin handiena jasaten

дутен eskualdeetan, alegia. Gipuzkoako ekialdeko zenbait lekutan zaparradak handiak izan ziren. Itsasoan ekaitzak izan ziren, goi-geruzako ezegonkortasunak eraginda, baina zaparrada trumoitsuak ez ziren kostaldera heldu. Arratsalde-gau partean, ipar-mendebaldeko haizearekin azalean eta goi-geruzan Frantzia zabalduetako askaren beherako adarra Kantauri itsasoaren ekialdean kokatu zen, horrela euria Kantauri isurialdeko barnealdera ere zabandu zen, batez ere Ibaizabalgo arroan. Gauean Gipuzkoako ekialdean zaparrada mardulak bota zituen, haien artean aipagarriena Ereñozun bota zuena (14.8 mm/h). Hilaren 30ean, goizaldean eta goizean goiz, noizbehinka zaparrada mardulak botatzen jarraitu zuen. Goizaldean Lasarten 14.7 mm/h neurtu ziren, baina aipagarriagoa izan zen goizean goiz Bilbo Handian neurtutakoa (Zorrotza, 28.5 mm/h; Galindo 15.9 mm/h). Bilbo Handiko zaparrada mardul horiek zenbait arazo eragin zituzten, besteak beste Olabeagako geltoki azpiko igarobidea urez bete zen eta metro-zerbitzua moztuta egon zen.

Estazioa	Prezipitazioa, hilak 29 (mm)
Behobia	63
Miramón	58.4
Oiartzun	55.2
Ereñozu	55.1

Estazioa	Prezipitazioa, hilak 30 (mm)
Zorrotza	46.2
Venta Alta	40.9
Galindo	37

Estazioa	Prezipitazioa, hilak 29 (mm/h)	Ordua UTC
Behobia	17.4	08:10
Oiartzun	15.1	08:40

Estazioa	Prezipitazioa, hilak 30 (mm/h)	Ordua UTC
Zorrotza	28.5	07:00
Galindo	15.9	07:20

Osteguna, hilak 29: Abisu Horia prezipitazio iraunkorragatik Kantauri isurialdean 00etatik 24etara ordu lokala. Abisu Horia prezipitazio handiagatik Kantauri isurialdean 00etatik 24etara ordu lokala.

Urria

- Hilaren 16an baso-sute arriskua altua izan zen hego-haizea indartsua izan zelako (Orduñan 106.9 km/h-ko haize-bolada 10etan UTC), tenperatura altua izan zelako (Saratxon eta Gardean 30 °C-tik gorakoa) eta lurra lehor zegoelako. Hurrengo bi egunetan hego-haizea ez zen hain indartsua izan (hilaren 17an, Orduña, 87.8 km/h; hilaren 18an, Berastegi, 79.7 km/h), baina hilaren 19tik aurrera haizea indartu egin zen berriro eta baso-sute arriskua altua izan zen berriro, hilaren 23an, 27an eta 28an oso altua. Egun horietan haizea zakar ibili zen, batez ere hilaren 20an, 23an eta 25ean, eta tenperatura 30 °C-tik gorakoa izan zen zenbait unetan, batez ere kostaldean. Hilaren 23an luze iraun zuen baso-sute bat piztu zen Balmasedan, lehenengo hipotesien arabera linea elektrikoaren gainean eroritako adar batengatik. Hilaren 25ean Arboledan izandako beste baso-sute bat ere aipagarria izan zen; Nerbioiko itsasadarraren ezker aldean eta eskuinaldeko zenbait tokitan ke usain handia sumatu zen. Hilaren 26an eta 27an haizeak ahultzera egin zuen, baina 27an, azken orduetan, indartu egin zen berriro eta Orduñan haize-boladek 100 km/h-ko abiadura gainditu zuten (117.5 km/h). Hilaren 28an ere, goizaldean eta goizean goiz, haizea zakarra izan zen (Orduña, 108 km/h; La Garbea, 100.9 km/h; Zorrotza, 77.3 km/h) eta Loiun, Arboledan eta Berangon baso-suteak izan ziren; arratsaldean kontrolpean izan zituzten horiek. Hilaren 29an haizea ez zen hain indartsua izan, baina Eibarren eta Zaraten (Gorbeialdean) baso-suteak izan ziren.

Estazioa	Haize-bolada, hilak 20 (km/h)	Ordua UTC
Orduña	125.6	19:50
Punta Galea	107.2	00:00
Untzueta	102	19:30
Tobillas	86.4	11:40

Haizegunea	Haize-bolada, hilak 23 (km/h)	Ordua UTC
Orduña	152.1	10:40
La Garbea	147.5	08:50
Cerroja	132.7	09:50
Untzueta	132.3	09:40
Oiz	128.8	09:20
Zaldiaran	123.1	11:30
Beluntza	117.8	10:30
Punta Galea	115.4	08:50
Matxitxako	106.2	11:30
Urkiola	100.9	10:20



Haizegunea ez den tokia	Haize-bolada, hilak 23 (km/h)	Ordua UTC
Mallabia	133.7	10:00
Gasteiz	124.2	11:50
Ordunte	118.2	09:50
Iurreta	110.4	09:50
Venta Alta	107.6	10:20
Gardea	104.1	10:00
Zambrana	101.3	11:40
Tobillas	100.9	12:30

Estazioa	Haize-bolada, hilak 25 (km/h)	Ordua UTC
Orduña	121.7	16:30
Cerroja	109.4	13:50
Zaldiaran	100.5	14:00
Untzuetta	100.2	15:40
Mallabia	88.2	16:40
Ordunte	85.4	16:40
Tobillas	85	15:50
Subijana	84	14:30
Nanclares	81.9	16:00
Venta Alta	81.5	13:30

Asteazkena, hilak 19: Abisu Horia baso-sute arriskuagatik Bizkaian eta Araba mendebaldean 12etatik 24etara ordu lokala.

Osteguna, hilak 20: Abisu Horia baso-sute arriskuagatik 00etatik 24etara ordu lokala.

Ostirala, hilak 21: Abisu Horia baso-sute arriskuagatik 00etatik 24etara ordu lokala.

Larunbata, hilak 22: Abisu Horia baso-sute arriskuagatik 00etatik 24etara ordu lokala.

Igandea, hilak 23: Abisu Horia baso-sute arriskuagatik 00etatik 24etara ordu lokala. Alerta Laranja baso-sute arriskuagatik Kantauri isurialdean 06etatik 15etara ordu lokala. Abisu Horia haizeagatik haizeguneetan 00etatik 18etara ordu lokala. Abisu Horia haizeagatik haizeguneak ez diren tokietan 06etatik 15etara ordu lokala.

Astelehena, hilak 24: Abisu Horia baso-sute arriskuagatik 00etatik 24etara ordu lokala.

Asteartea, hilak 25: Abisu Horia baso-sute arriskuagatik 00etatik 24etara ordu lokala. Abisu Horia haizeagatik mendebaldeko haizeguneetan 13etatik 19etara ordu lokala.

Asteazkena, hilak 26: Abisu Horia baso-sute arriskuagatik 00etatik 24etara ordu lokala.

Osteguna, hilak 27: Alerta Laranja baso-sute arriskuagatik Kantauri isurialdean 00etatik 24etara ordu lokala. Abisu Horia baso-sute arriskuagatik Mediterraneo isurialdean 00etatik 24etara ordu lokala.

Ostirala, hilak 28: Alerta Laranja baso-sute arriskuagatik Kantauri isurialdean 00etatik 24etara ordu lokala. Abisu Horia baso-sute arriskuagatik Mediterraneo isurialdean 00etatik 24etara ordu lokala.

Larunbata, hilak 29: Alerta Laranja baso-sute arriskuagatik Kantauri isurialdean 00etatik 24etara ordu lokala. Abisu Horia baso-sute arriskuagatik Mediterraneo isurialdean 00etatik 24etara ordu lokala.

Azaroa

- Hilaren 18an, egunaren bigarren partean, eta hilaren 19an, egunaren hasieran, goi-geruzan aska bat kokatu eta lurrazalean mendebal/ipar-mendebaldeko fluxua gailendu zen. Kostaldean euri txiki-ertaina egin zuen; barnealdean euria urriagoa izan zen eta Arabako hegoaldean ez zuen ia euririk egin. Hilaren 19an, egunaren lehenengo partean, Kantauri isurialdean bota zituen zaparradarik mardulenak, batez ere ekialdean, Kantauri itsasoaren ekialdean ezegonkortasun-lerro bat kokatu baitzen. Egunaren bigarren partean goi-geruzako aska Mediterraneo itsasoko mendebaldera mugitu zen eta atertzera egin zuen, euria egiten jarraitu zuen arren; Gipuzkoako ekialdean zaparrada ertainak bota zituen noizbehinka. Hilaren 19an Behobian, Lasarten eta Andoainen 60 mm inguru pilatu ziren.

Estazioa	Euria (mm/24 h)
Eskas	64.2
Miramon	58.2

Ostirala, hilak 18: Abisu Horia prezipitazio iraunkorragatik Gipuzkoan 12etatik 24etara ordu lokala.

Larunbata, hilak 19: Abisu Horia prezipitazio iraunkorragatik Gipuzkoan 00etatik 12etara ordu lokala.

- Hilaren 21ean, eguna aurrera joan ahala, Bizkaiko golkoan eta Iberiar Penintsularen iparraldean aire hotza zabalduz joan zen goi-geruzan. Lurrazalean, egunaren erdiko orduetan fronte hotz batek lurraldea zeharkatu zuen, Britainiar Uharteetan kokatutako depresio bati lotuta. Frontearen atzetik, ezegonkortasun-lerro batzuk pasa ziren. Egunaren erdiko orduetan eta arratsalde-gau partean euria egin zuen denean, bai Mediterraneo isurialdean, bai Kantauri isurialdean. Zaparrada ertainak eta trumoiitsuak bota zituen, Gipuzkoako zenbait lekutan handiak (Eskas eta Miramon 20 mm/h, Oñati 16.9 mm/h) eta egunaren amaieran elur-kota 1000 metro inguruan egon zen. Arratsaldean Bidasoako arroan kokatutako Jaizubia estazioa maila laranjara igo zen azkar, gero oso azkar jaitsi zen berriro. Azken orduetan atertzera egin zuen, batez ere barnealdean. Horrela, hilaren 22an, goizaldean, Kantauri isurialdean han-hemenka euri txikia egin zuen eta gainerako tokietan ateri eutsi zion.

Estazioa	Euria, hilak 21 (mm/24 h)
Eskas	68.6
Miramon	67.2
Behobia	62.5

Astelehena, hilak 21: Abisu Horia prezipitazio iraunkorragatik Gipuzkoan 12etatik 24etara ordu lokala.

Asteartea, hilak 22: Abisu Horia prezipitazio iraunkorragatik Gipuzkoan 00etatik 06etara ordu lokala.

- Britainiar uharteen mendebaldean kokatutako depresio baten eraginpean, hilaren 21etik aurrera hondoko itsasoak altxatutako olatuak Kantauri itsasora heldu ziren eta olatuen altuerak gora egin zuen eta itsasgoren inguruan gainezka egin zuen. Hilaren 21ean, egunaren lehenengo partean olatuen altuera gero eta handiagoa izan zen eta arratsalde-gau partean maximoa neurtu zen (Donostiako buian 6.6 m, Pasaiaiko portuan 6.29 m). Hilaren 22an, egunaren lehenengo partean Donostiako buian olatuen altuera adierazgarria 5 metrotik gorakoa izan zen eta 7 metro ingurukoa izan zen noizbehinka (6.875 m 04etan UTC eta 08etan UTC), Pasaiaiko portuan olatuen altuera adierazgarria 09etan UTC 6.45 m-koa izan zen. Arratsalde-gau partean olatuen altuera txikiagoa izan zen, baina azken orduetan eta hilaren 23an, egunaren lehenengo partean, Pasaiaiko portuan 3.5 metrotik gora mantendu zen, tarteka 4 metrotik gorakoa (hilaren 23an, 4.22 metro 04etan UTC). Hilaren 23an, goizaldeko itsasgoran estimatutako gainezka egiteko indizeak $I = 6.1$ m eta $I_{max} = 6.6$ m izan ziren, arratsaldekoan $I = 6$ m eta $I_{max} = 6.5$ m. Hilaren 24an, goizean, olatuen altuera handitu zen berriro eta gertaera osoan neurtutako altuerarik handiena Donostiako buian neurtu zen (7.875 m 11etan UTC) eta Pasaiaiko portuan 6 metrotik gorakoa izan zen (6.11 m 11etan UTC). Hilaren 24an, goizaldeko itsasgoran estimatutako gainezka egiteko indizeak $I = 5.9$ m eta $I_{max} = 6.3$ m izan ziren, arratsaldekoan $I = 6.8$ m eta $I_{max} = 7.5$ m, orduan olatuen periodoa oso altua izan zelako, 18 segundokoa. Hilaren 25ean Donostiako buian olatuen altuera adierazgarria 6 metrotik gorakoa izan zen noizbehinka, Pasaiaiko portuan 3.5 metrotik gorakoa, baina arratsalde-gau partean gero eta txikiagoa izan zen. Hilaren 25ean, goizaldeko itsasgoran estimatutako gainezka egiteko indizeak $I = 6.5$ m eta $I_{max} = 7$ m izan ziren, arratsaldekoan $I = 6.2$ m eta $I_{max} = 6.8$ m.

Estazioa	Olatuen altuera adierazgarria, hilak 21 (m)	Ordua UTC
Donostiako buia	6.625	20:00
Pasaiaiko portua	6.29	21:00

Estazioa	Olatuen altuera adierazgarria, hilak 22 (m)	Ordua UTC
Donostiako buia	6.875	04:00
Pasaiaiko portua	6.45	09:00

Estazioa	Olatuen altuera adierazgarria, hilak 23 (m)	Ordua UTC
Donostiako buia	5	04:00
Pasaiaiko portua	4.22	03:00



Estazioa	Olatuen altuera adierazgarria, hilak 24 (m)	Ordua UTC
Donostiako buia	7.875	11:00
Pasaiaiko portua	6.11	11:00

Estazioa	Olatuen altuera adierazgarria, hilak 25 (m)	Ordua UTC
Donostiako buia	6.375	02:00
Pasaiaiko portua	3.96	15:00

Astelehena, hilak 21: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 12etatik 24etara ordu lokala.

Astearte, hilak 22: Alerta Laranja itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 00etatik 15etara ordu lokala. Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 15etatik 24etara ordu lokala. Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Olatuen zipriztinak 00etatik 17etara ordu lokala. Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldean inpaktua 13etatik 17etara ordu lokala.

Asteazkena, hilak 23: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 00etatik 18etara ordu lokala. Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldean inpaktua 02etatik 05etara ordu lokala. Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldean inpaktua 15etatik 17etara ordu lokala.

Osteguna, hilak 24: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 09etatik 24etara ordu lokala. Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldean inpaktua 03etatik 05etara ordu lokala. Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldean inpaktua 15etatik 19etara ordu lokala.

Ostirala, hilak 25: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 00etatik 24etara ordu lokala. Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldean inpaktua 03etatik 07etara ordu lokala. Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldean inpaktua 16etatik 19etara ordu lokala.

Terminologia

Batez besteko tenperatura: hileko batez besteko tenperatura.

- *Tenperatura maximoa:* eguneko tenperatura maximoen hileko batez bestekoa.
- *Tenperatura maximo absolutua:* hileko tenperaturarik altuena.
- *Tenperatura minimoa:* eguneko tenperatura minimoen hileko batez bestekoa.
- *Tenperatura minimo absolutua:* hileko tenperaturarik baxuena.
- *Izotz-egunak:* hilean, tenperatura 0 °C-tik behera egon deneko egun kopurua.
- *Pilatutako prezipitazioa:* hilean pilatutako prezipitazio totala.
- *Eguneko prezipitazio maximoa:* hilean, eguneko prezipitazio total altuena.
- *Prezipitazio-egunak:* hilean, estazioak ≥ 1 mm-ko prezipitazioa neurtzen duen egun kopurua.

Tenperaturaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:

- *Erabat beroa:* tenperaturak, 1971-2000ko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso beroa:* $f < \%20$. tenperatura, urterik beroenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Beroa:* $\%20 \leq f < \%40$.
- *Ohikoa:* $\%40 \leq f < \%60$. tenperatura erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Hotza:* $\%60 \leq f < \%80$.
- *Oso hotza:* $f \geq \%80$. tenperatura, urterik hotzenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat hotza:* tenperatura, 1971-2000ko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

Prezipitazioaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:

- *Erabat hezea:* prezipitazio-kopurua, 1971-2000ko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso hezea* $f < \%20$. prezipitazio-kopurua, urterik hezeenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Hezea:* $\%20 \leq f < \%40$.
- *Ohikoa:* $\%40 \leq f < \%60$. prezipitazio-kopurua erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Lehorra:* $\%60 \leq f < \%80$.
- *Oso lehorra:* $f \geq \%80$. prezipitazio-kopurua, urterik lehorrenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat lehorra:* prezipitazio-kopurua, 1971-2000ko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

Testuan erabilitako beste termino meteorologikoen azalpena hurrengo terminologia gidan aurki daiteke:

OHARRA: txosten honetan erabilitako datuak behin-behinekoak dira eta erabat balioztatzeko daude.